



SEME-ALABAK ZAINTEKO SUSPENTSIOA ESKATZEKOTAN EZ DITUZTE BOTAKO LAN-POLTSATIK BITARTEKO LANGILEAK; ORDURA ARTE BETE DUTEN LANPOSTUA LEP EDO LEHIAKETA BITARTEZ EZ BADA ESLEITU, PLAZ HARTARA ITZULIKO DUTE

LABek auzitegietan lortu du lan-poltsetako suspentsioa seme-alabak zaintzeko eszedentziarekin parekatzea: baliteke hasierako lapostura ere itzultzea, hutsik jarraituz gero plaza.

LABeko afiliatua den bitarteko langile batek uko egin zion seme-alabak zaintzeko xedez lan-poltsetan suspentsioan geratzea borondatezko bajatzat hartzeari. Justizia Sailak argudiatzen zuen bitarteko langileak izendatzeko araudia eztabaida ez dela eta ez dagoela modurik lan-poltsetan geratzeko seme-alabak zaintzeko orduan; are gutxiago aurreko lanpostura itzultzeko, hura ezein titularrek bete ez arren.

Hala bada, auzitegietara jo genuen eta langile afiliatuaren alde epaitu dute: lan-poltsetan zuen ordenan berriro administrazioak langilea onartu behar izatea ez ezik, epaiak bitarteko langileek seme-alabak zaintzeko duten eskubidea titularrek dutenarekin parekatu egiten du ere. Justizia Administrazioako Zuzendaritzak, hortaz, bere burua behartuta ikusi du oraindik hutsik zegoen lanpostura bihurtzera langilea.

Hori guztiaz gain, seme-alabak zaintzen emandako denboraldia lan egintzat hartzen dute antzinasunari eta erretiroari begira, egoera berdinean dauden langile titularrekin gertatzen den bezala. Ondoren BJLOren (Botere Judizialaren Lege Organikoa) 509. artikulua paragrafo zatia kopiatzen dugu: *“El tiempo de permanencia en esta situación será computable a efectos de trienios, carrera y derechos en el régimen de Seguridad Social que sea de aplicación. El puesto desempeñado se reservará al menos dos años.”*

Aspalditik ari da LAB borrokatzen bitarteko langileak titularrekin parekatzeko helburuarekin, bai eta senideak zaintzeko kontu guztietan ere. Hobe izango zatekeen sailak berak atzera egitea emandako ebazpenen bitartez. Horrela egin egin ez zuenez, oraingo honetan behintzat auzitegiak langilearen alde erabaki du eta, horrela, hainbat administrazioek tema handiz arbuizatu duten berdintasuna egikaritzea lortu dugu.

Justizia Sailaren jokabide baztertzaila horrek bereziki emakumeak kaltetu ditu, beroriek baitira gehienbat senideak zaintzeko eskubideei heltzen dietenak. Izan ere, horrelako kasuetan diskriminazioa bikoitza da, bitarteko langileak izateagatik eta emakumeak izateagatik.